

ARGIBIDEAK PRAKTIKAK HASIERA (25/26 IKASTURTEA)

IKASLEA EZ DA ENTITATEAN AURKEZTUKO TUTOREAREN BAIMENIK IZAN GABE.

1. Konproba ezazu GAUR aplikazioan (irakaslaren perfilean, nahitaezko praktikak atalean) zer praktikak dituzun esleituta.

Praktikak hasi baino lehen, tutorea harremanetan jarriko da praktiketako arloko arduradun bakoitzarekin, praktiketako ikuspegia argi edukitzeko eta ikasleak praktiketan zehar eta bukaeran egingo duen lana ondo ezagutzeko.

Praktikak arloko arduradunak:

- Entrenamendua – Javier Orbañanos
- Osasuna – Sara Maldonado
- Kudeaketa – Inma Martinez de Aldama
- Irakaskuntza – Iñaki Llodio

2. Jarri harremanetan entitateko kontaktu-pertsonarekin zure burua aurkezteko eta, batez ere, jakiteko nor izango den ikaslearen instruktorea.

Ezberdina bada, eskatu itzazu instruktorearekin harremanetan jartzeko behar diren datuak. Kontaktatu praktikak aurkezteko eta zuen artean komunikatzeko kanala zehaztea.

Eskatu behar diren instruktorearen datuak:

- Izen-abizenak
- NAN
- Telefonoa
- Email
- Jaiotze data

Instruktorearen datu hauek Zentruko Teknikariari (jesusangel.larrinaga@ehu.eus) jakinaraziko zaizkio, aplikazioan sartu ahal izan ditzan.

Entitateko arduradunari jakinarazi behar zaio praktiketan ikaslearen jarduna une oro gainberatua egon behar dela, eta ikasleak ezin duela inoiz lanpostu baten lana bete.

Komenigarria da instruktorei esatea ikaslearen jarrera edo konpromisoa egokia izan ezean, lehen bait lehen guri jakinaraztea, garaiz bideratzeko aukera izan dezagun.

Aldi berean, Fakultateko tutorea ikaslearekin bilduko da praktikak aurkezteko, web orrian jarritako informazioa elkarrekin aztertzeko, eta tutoretza egunak eta datak zehazteko. Gainera, baimena emango dio ikasleari entitatara hurbiltzeko eta esango diot norekin, nola eta noiz hurbilduko den.

Praktiketan ikasleak adingabekoekin egon behar badu, tutoreak egiaztatu behar du ikasleak delitu sexualen aurrekaririk ez dituela. Horretarako, Praktika arduradunari galdetu behar dio (Maite Fuentes Azpiroz). Arduradunak informazio hori izan ezean,

ikasleak ziurtagiria lortu beharko du eta eskura izan bere praktikak Entitatean hasi baino lehen.

<https://egk.eus/eu/oraindik-ez-duzu-ziurtagiria/>

IKASLEA EZ DA ENTITATEAN AURKEZTUKO TUTOREAREN BAIMENIK IZAN GABE.

3. Hasiera eman beharreko urratsak GAUR praktiketako aplikazioan zehaztu dira.

4. Praktiketako **PRESTAKUNTZA PROIEKTUA** Entitateko instruktoreak, tutoreak eta ikasleak elkarrekin adostu behar dute. Eredua Fakultateko web orrian dago praktikak atalean (Kirola lekuan). Dokumentua word formatoan dago, errazago bete ahal izateko.

Ikasleak entitateko segurtasun eta lan arriskuen prebentziorako araudiari buruzko informazioa jasoko du. Puntu hau, zeregin bezala gehituko da proiektuan, gainerako zereginekin batera.

Prestakuntza proiektua bete bezain laster, instruktoreak, tutoreak eta ikasleak sinatuko dute. Entitateak, ikasleak eta tutoreak, bakoitzak bere kopia gordeko du. Hirugarren kopia tutoreak gordeko du bere ikaslearen dossierrean (horri erantsiko dizkio praktikei lotutako lan akademikoak, egindako tutoretzen emaitzak... eta egindako praktikekin lotutako informazio/dokumentazio guztia).

5. Praktiketan zehar zerbait garrantzitsua gertatzen bada, Maite Fuentes Azpiroz, Praktiketako Arduradunari lehenbailehen jakinaraziko zaio (maite.fuentes@ehu.eus).